


ttipi-ttapa

268. zenbakia • 1999ko abenduak 23 • XIX. urtea

Parapentea

Txorien inbidiarik ez

Hegaztien gisa hegan ibiltzea gizakiaren aspaldiko ametsa da. Esperientzia hori bizitzea edozeinen esku dago gaur egun parapenteari esker. Izan ere, kirol hau egiteko bete beharreko baldintza bakarra oinez ibiltzeko gai izatea da. Eta bertigorik ez izatea ere bai, noski.

Jende gutti ibiltzen baldin bada ere, kirol hau egiteko toki ikaragarri politak omen ditugu eskualdean: Larun, Mendaur, Leitza, Gorramendi... Edozein asteburutan mendira joaten bazara beharbada han ikusiko dituzu, beren motxila haundiak bizkarrean dituztela haizearen mugimendui erme-erme begira. Parapentelariak dira.  4-5



3 Elkarriketa: Isidro Bazterrika

Iturengo zerri-hazle honek Porc D'Or saria eskuratu du hirugarren aldiz. Bere sekretua zein ote den jakiteko elkarriketa egin diogu: «guk zerriak eta aketzak etxean ditugu eta kanpora ateratzen ahal ditugu. Akaso horregatik indar gehiago izaten du zerriak, gogorragoa da» dio.

7 Irizia: Kolaborazioak

Baztanen euskararen erabilerari buruzko artikulua irakur daiteke 7. orrialdean, Paula Casares Baztango Euskara Teknikariak idatzia, eta ondoan Pello Astiz EHko kideak gaurkotasun haundiko gai bati heldu dio: ETaren su-etena.

28 Kirola: 1999ko kirol izendegia

Aurtengo urteak kiroletan eman dituen protagonista nagusiak bildu ditugu urtero bezala. A-tik hasi eta Z-raino, kirol guzietan gailendu diren kirolariei buruzko aipamena egin dugu.

TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



MUEBLES AMETS

mobleak orokorrean



Eguberri
zoriontsuak
opa
dizkizuegu



DATUAK.....

❖ Zubialdea baserriko semea da Isidro Bazterrika, 41 urteko itturendarra.

❖ Hogeita borts zerrama ditu etxean eta zerrikumeak hazten ditu. «Hiru aste dituztenean kooperatibara saltzen ditut».

❖ Estatu osoko zerri hazleen artean egiten den Porc D'Or lehiaketan urrezko domina eskuratu du hirugarren aldiz, zerrama bakoitzeko jaiotako zerrikume kopuruagatik.

❖ Zerriez gain, ardiak eta behiak dituzte etxean. «Garai batean zerriak zuen prezioarekin baserria mantentzen ahal zen, baina orain dena behar dugu» dio Isidrok.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

👉 **Isidro BAZTERRIKA** Iturengo zerri-hazlea

“Kanpoan ibiltzen bada indar gehiagorekin hazten da zerria”


HIRUGARREN ALDIZ IRABAZI DUZU PORC D'OR SARIA. ZEIN DA ZURE SEKRETUA?

Ez dakit xuxen hiru edo lau aldiz diren, baina beti sail berean irabazi dut: zerrama bakoitzeko urtean jaiotako zerrikume kopuruagatik. Zerri guzien kontrola eramaten dugu paperean eta ITGkoek bisitak egiten dituzte. Uste dut gurean banaz bertze 26 zerrikumetik goiti jaiotzen direla zerrama bakoitzeko, normala 22 denean. Sekretua? Guk zerriak eta aketza etxean ditugu eta kanpora ateratzen ahal ditugu. Akaso horregatik indar gehiago izaten du zerriak, gogorragoa da.

GERO ZERRIKUMEAK SALDU EGITEN DITUZU?

Hiru aste betetzen dituztenean AN kooperatibara saltzen dugu. Umaldi bakoitzean hamahiru bat sortzen dira eta hamar-hameka zerrikume ailegatzen dira adin horretara. Orain berriki hamasei zerrikume umaldia izan dugu eta denak ongi hazi dira, bertze batek zazpi izanen ditu. Kooperatibari ibiltzengarenok zerrikume bakoitza 3.050 pezetan saltzen dugu gaur egun. Librean dexte gehiago gostako da. Eguberrietan dexte goiti egiten du zerrikumearen prezioak.

📌 *“Martxa gehixeago bada ere, ez dut uste zerria krisitik ateratzen ari denik. Akaso, Nafarroako Jatorrizko Izendapena egitea izaten ahal da soluzioa, baina nork daki!”*



«Hemengo zerritegiak tikiagoak dira eta kaso egiten zaio zerri bakoitzari»

AZKEN URTEOTAN KRISI LARRIAN EGON DA ZERRIAREN SEKTOREA. HORTIK ATERATZEN ARI DELA USTE DUZU?

Momentu honetan martxa gehixeago bada, baina ez dut uste krisitik ateratzen ari denik. Gostako zaio hortik ateratzea, soluzioa ez baita batere errexia. Akaso, Nafarroako denominazioa edo Jatorrizko izen-

dapena egitea izaten ahal da aterabidea, baina nork daki!

ZURETAN GAIN, ESKUALDEKO LAU ABELTZAINEK JASO DUTESA RIRIK AURTENGO EDIZIOAN. BERTZE LEKUE-TAN BAINO GEHIAGO ZAITZEN DUZUE HEMEN ZERRIA?

Lehen aipatu dut gure kasuan zerrikanpoan kontzen dugula, baina adibidez, Begoña Sanzberrok itegian izaten ditu eta bi sari irabazi ditu. Ez dakit, manejuan edo kuido gehiagorekin ibiliko gara... Gainera, hemengo

zerritegiak tikiagoak dira eta horregatik kaso gehiago egiten ahal zaio zerri bakoitzari.

ZERRIEKIN BAKARRIK MANTENTZEN AHAL DA BASERRIA?

Gure kasuan behinpeinez, 25 zerrama bertzerik ez ditugu eta. Etxean ardi batzuk eta behiak ere baditugu. Garai batean, zerriak prezio hobea egiten zuten bai, lana unitz eginda eta zerri gehiagorekin mantentzen ahal zen baserria, baina lana gogotik eginda. Gaur den egunean, dena behar izaten dugu.



PARAPENTEA

Laino guzien gaineratik

Parapentea guttik egiten duten kirola dela aipatu dugu, bainan hori gehiagoko zehazteko, erran dezagun Nafarroan 200 bat federatu daudela bakarrik. Euskal Autonomi Elkartearen berriz, 700 lagun ingurudira *hegatzeko lizentzia* dutenak, baina horietatik erdiek ere ez omen dute maiztasunez hegan egiten. Zarbo Ibarrola doneztebarra da gure eskualdeko parapentelari veteranoenetako bat. Berak aipatu digunez, asteburu arrunt batean 200 bat lagun hegatzten dira Euskal Herriko mendi kaxkoetatik. Zarbori 92an sartu zitzaion parapentean ibiltzeko asmoa: «Behin Anetora goitu ginelarik, Nil Bohigas mendizale katalandarra ikusi genuen handik hegatzten, eta huraprobatu behar nuela erran nion nere buruari. Hasieran mendira oinez goitu eta gero parapentean jausteko ideiak izugarri erakartzen ninduen, bainan gero gauzak aldatzen dira. Nahiz eta biek osagarriak izan, pixkanaka mendizaletasuna alde batera uzten da parapentean bu-

rubelarri sartzeko».

Tobi Ruiz eta Miguel Solano gazte beratarrek ere mendizaletasuna eta parapentea tartekatzen dute. Bizpahiru urte darimate parapentearekin, eta kirol honek ematen duen askatasun sentazioak erakarrira hasi ziren. Lehendabizi ikastaroa egin zuten Irunen, «baina segituan ikasten da, 6 hilabetez maila polita hartzen ahal da». Geroztik euren kontura ibiltzen dira ahal duten guzietan. «Hemen inguruan Gorramendin, Larunen, Santa Barbaran... aritzen gara. Eskualdean beharbada Arantzako hegaldiadapolitena» diote, «baina tarteka Yesa edo Belagua aldera ere joaten gara».

“Pixkot hegatu eta aunitz solastu”

Parapentean ibiltzen direnek kilometro aunitz egin ohi dute autoan, airean egiten dituztenak baino puskaz gehiago, dudarik gabe. Dagoen hai-

Zeruko lainoek kezka sortzen dute kirol honetan aritzen direnen artean, baina zerukoak baino beltzagoak diren bertze laino batzuk ere badaude parapentearen inguruan. Izan ere, betidanik guttiengo baten kirola izan da, eta jende gehienak erotzat edo ausartegizat ditu kirolari hauek. Komunikabideetan, bertzalde, parapentearen inguruko berri txarrak bertzerik ez dira agertzen, eta horrela oraindik gehiago zikintzen da kirol honen ospe txarra. Aurreritziak alde batera utzita, parapentea bertatik bertara bizi dutenei emanen diegu hitza erreportai honetan, eta gero norberak atera ditzala behar dituen ondorioak.

TESTUA: ASIER GOGORTZA

ARGAZKIAK: ASIER G. ETA ZARBO IBARROLA

zearen arabera toki batzuk onak izaten dira eta bertzeak txarrak, eta zenbaitetan bertaraino joan gabe ezin jakin hegatzten ahal den edo ez. Zarbok kontatu digun anekdota batek argi uzten du kirol honek sortzen duen txirrinta: «behin Zarautzera joan ginen hegatzera... han haizegoa suertatueta ezin izan ginen bota. Autoa hartu eta

Iruñera joan ginen, handik Aran-goitira, gero Jacara... eta Jacatik etxera, hegatu gabe!». Hau nahikoa ez ballitz, zera gaineratzen du parapentearen filosofia zein den azaltzeko: «fisikoki ongi egotea baino burua bere tokian edukitzea eskatzen du kirol honek. Hegatzen ahal ez denean ez da hegatzeko, eta puntu. Bi arraultze zitorrarekin, ardo botila bat eta etxera. Parapentea pixko bat hegatzeko eta aunitz solas-tea da».

Dena den, urrun joan gabe hemen bertan toki aski politak daude hegatzeko, «Mendaurren bertan, edo Leitzako antenatik ere bai, herriraino hegatzeko mundiala da eta lurreratze errexa». Hala ere, toki hoieri ez zaie probetxua ateratzen Zarboren ustez, ez baitago nahiko jenderik. Eskualdean dozena bat lagun izanen dira Zarboren kalkuluen arabera: «Beran kuadrila bat, Oronezen lagun bat, ni Doneztebetik, eta Baztanen ere badira bertze lau-bortz lagun. Dena den, orain dela 3-4 urte boladan jarri zen parapentea, eta Donostiako Ostargi elkarteak 200 ikastaro emankatu zituzten udabatean. Orain, ordea, 40 bat ematen dira bakarrik».

Iduri duena bezain arriskutsua ote da?

Kirol honek duen arriskuari buruz, gauzak nahiko garbi dituzte denek ere, Alde batetik, kirol hagitz segurua dela diote, «baina gauza guzietan bezalakirolari lasaiak eta ausartegiak daude. Jende lasaiak esperientzia hartzen du pixkanaka, eta seguraski ez dute inoiz istripurik izanen. Baina arriskatzeko aukera hor dago, adrenalina botatzeko... bakoitzak ikusi behar du non dagoen bere muga» dio Zarbok. Tobi berata-

rrak, berriz, «hor goian zaudela kontuan izan behar da beti» dio, «eta edozein hankasartze hagitz larria izaten ahal dela. Ez da ona zure burua engainatzea, parapentea ez da saskibaloian jokatzea bezala». Miguelsolanok ere berdin pentsatzen du, «arriskatu nahi baduzu bakkirik bihurtzen da arrisksua».

Azken garaian hainbete aipatzen diren arrisku kirolen artean sartu ohi da parapentea ere, eta Zarbo, adibidez, ez dago batere ados izen horrekin: «nik argi eta garbi dut ez dudala arrisku kirolik egiten, mendiko kirolak baizik. Gainera, izen hori ez zait batere gustatzen. Izatekotan, diskoteka batean ligatzeko balio du, eta hori neskak hagitz ton-toak direla pentsatzen baduzu».

Akautzeko, kirol honen bi alderdi on aipatuko ditugu. Batetik, oinez ibiltzeko gai den edonork egin dezakeela, eta bertetik, elkarren artean sortzen den giro sanoa. «Giroa hagitz ederra da. Kanpotik kirol pijoak bezala ikusten da, baina behin barranean jendea hagitz jatorra dela ikusten duzu, eta eroska xamarrek ere bai. Hemen ez dago klaserik, adibidez snowboard-ean bezala» dio Zarbok.

Bertze batzuen aldean kirol garesti xamarra da parapentea, baina erositako tresnak ia bizitza guzira direla kontuan izan behar da. Gainera, Zarbok dioenez, «gaur egun bigarren eskuko merkatu ikaragarria dago. Ikastaroa, eskolako parapente eder bat, eta hasteko ekipo dexente bat 150.000 pezetatan erosten ahal da. Dena den, lehen aldiz probatzeko biplaza bat egitea gomendatuko nuke, 7.000 pezetatan ateratzenda».

Ikastaroak Irungo Amasain edo Donostiako Ostargi parapente taldeetan egin daitezke. Telefono bat ere eman digute: 609 418 097 (Zarbo Ibarrola). ■

OSAGARRIAK

■ Kanpaia

Modelo desberdinak daude; eskolako, estandarra eta konpetiziokoak. Batetik bertzerera dagoen alde planeatzeko gaitasunaren arabera da.

✓ 50.000tik 500.000 pta arte

■ Aulkia

Beharrezkoa da. Bizkarra eta alboak babesteko balio du. Gaur egun badira airbag-a duten aulkiak.

✓ 40.000 pta inguru

■ Kaskoa

Beharrezkoa. Motoan ibiltzeko kaskoa erabil daiteke, edo hau bezalako kasko berexia.

✓ 20.000 pta inguru

■ Jauskailua

Den-denek ez dute erabiltzen, baina interesgarria da edukitzea.

✓ 50.000 pta inguru

■ GPSa

Momentu guzitan non kokatua zauden erraten dizu tresna honek. Satellite bidez hartzen ditu erreferentziak. Bidaia luzeak egiteko garrantzitsua da.

✓ 20.000 ptatik goiti

■ Bariometroa

Altuera eta goitzen edo behitzen ari zaren abiadura neurtzeko. Ez da beharrezkoa.

✓ 30.000 ptatik goiti

■ Walkie-talkieak


Elkarren artean (airean nahiz lurlean) solasteko.

✓ 10.000 ptatik goiti

■ Anemometroa

Haizearen abiadura neurtzen du.

✓ 10.000 pta



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Iri-

goien. **Zuzendaria:** Aitor Aroze-

na. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-

na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fer-

nandez, Lorena Galarregi, Pa-

blo Mendiburu, Franck Dolosor,

Margari Etxenike, Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri, Frederick

Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe

Maiz, Oskar Txoperena, Pello

Apezetxea, Aitor Arozena, Asier

Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafar-

roa, Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde**

Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goi-

zueta, Arano, Areso, Baztan, Ur-

dazubi eta Sarako udalak, Bortzi-

retako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomu-

nitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.000 Pta.

Par Euskal Herria ... 140 Libera

Europa ... 3.500 Pta.

Amerika ... 15.000 Pta.

Mugak suntsituz

«Larunbat gaua iritsi da, gazte talde guztiak besta egiteko intentzioarekin elkartu dira, giro ederrean daude, bapatean... argiak itzaltzen dira, kea ateratzen da, "argi fosforeszenteak" pizten dira, guzti honen diskoteka itxura hartu nahi duelako. Laguna ezin ikusi, eta gainera lagunekin ezin solastu». Gazteriaren harreremak puskatuz, eta besta egiteko era aldatuz.

Zergatik aldatu ostatu baten sustraiak, tradizioak, martxa... lehenago ongi bazihoan? Betidanik, Doneztebeko arratsetako martxa giro ederrekoa izan da, orain, berriz, gauzak txarrerako aldatzen dira. Ez al gara konturatzen mugak puskateak ondorio txarrak dakartzala? Herriko gazteak jadanik konturatu gara, besta giro horrek (hori besta giroa baldin bada) gazteriarengan duen eragin txarraz. Bertze modu batez erranda, gazteria hondatzen ari da. Guzti honekin ez gara "bakailu" musikari kritika bat egiten ari; azken finean, tabernari bakoitzak askatasun guztia duelako. Baina herriko gazteriari zor digun errespeta kontuan hartu.

DONEZTEBEKO GAZTE BATZUK



Guraso elkartearen ekarpena

Garai honetan urtero egiten dugun moduan, abenduaren 5ean eskolako neguko besta, Euskararen Eguna, antolatu dugu. Gure helburu nagusia gure kulturaren gaineko berrespeta da eta, jakina, ekintza erretentagarriak sortzea umteenzat. Honela, eta talo bero batek lagunduta, Euskara Zerbitzuak eskaintako antzerki gozatu ahal izan dugu, ondoren gure umeek urte-urte pilotan nola aurrreratzen duten ikusteko. Herri-bazkarian bakailo-lehiaketa dastatu baino lehen, gure umeen dantekin hunkitzeko parada ere izan dugu. Aurten bazkalondoa laguntzeko Leitza-ko abesbatzaren kantuak izan ditugu. Arratsaldeko 5ak aldera kantuekin jarraitu dugu, baina oraingo honetan eskolako umeak izan ditugukantari, eta ondoren trikitixa txapelketa hasi da. Txapelketarekin batera, Aresoko panderojoleen eta trikitilarien erakustaldia izan dugu. Jaia bukatzeko guraso elkarteak eskaintzen dien txokolatada izan dugu, etengabe ematen zaigun laguntza eskertzeko. Eguna honela bukatu da, denoi tokia eman dugun besta polit bat

egin izanaren poztasunarekin, eta heldu den urtean oraindik hobeagoa izan den besta antolatzeko asmoarekin. Baina ez dira hemen bukatzen Guraso Elkarteak aurtentolatu behar dituen ekintzak. Eguberrietarako saski eder baten zozketa ere martxan jarri dugu, gure gazte guztiak behar duten ordenagailua liburutegirako erosteak eskatu dugu ahalegin ekonomikoaz errekuperatzeko. Bilboko jolas-parkera eta Guggenheim museora irteera ere prestatu dugu. Eguberrietan zehar, iaz bezala, kirol jarduerak eta pelikula emanen dira. Eta lerro hauek baliatuz, herri osoa gonbidatu nahi dugu eskaera bilduko dituen eta parkean jarriko den eskolako Belenean goxokiak banatuko dituen Olentzerori harrera egiteko. Honela, hurrengo urtean ere lanean jarraitzeko asmo sendoa dugu, gure umei ahal dugun guztia eta dugun hoberena eskaintzeko. Ez litzateke gizelegezkoa, bestalde, elkartek honek jasotzen duen babes orokorra ahaztea. Beraz, hurrengo urterako ere, zoriona opa dizuegu guztiok.

ARESOKO GURASO ELKARTEA

Irtenbide baten eske

Bertze asteazkenetan bezala, gaur azaroaren 17an Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen (K.P.B.) bilera izan dugu; eta hortan, gure Institutuan kezka larria sortzen duen gaia azaldu da. Batxilergo 2. maila ezarri den urte honetan berriro hasi zaizkigu ikasgai ezberdinetako koordinatzaileak bileretara deitzen. Tamalgarria bada ere, euskaraz irakasten dugunok ez daukagu ezta oinarriko materiala gure ikasgaiekin hasteko ere. Oraindik ez daukagu programazio bera ere, euskaraz noski! Honetaz gain, bileretan banatzen ari diren bertze material guztiak ere (Batxilergorako material didaktikoak, testuak, praktikak, ereduak...) denak gaztelera hutsean daude. Hau ikusita, gure lana behar den bezala betetzeko honi dagokion irtenbidea emateko eskatzen dugu.

I.E.S. LEKARÖZ-ELIZONDO B.H.I.

K.P.B. REN LEHENDAKARIA

AGUSTIN OLABE OSKARIZ



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerdik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

 **Paula KASARES** Soziolinguista

Hizkuntza ukipena edo ukapena Baztanen



Elebitasuna kontzeptu lausoa eta zehazgabea da. Baztanen elebitasuna dugula erratea deus ez

erratea da. Artikulu honetan elebitasun hitzak ematen duen komunitatearen ikuspegi desitxuratua agerian uzten saiatuko naiz, horregatik, hizkuntza ukipena erabili nahiago izan dut izenbururako, aurreritzi gutiago sortzen baitu. Estadistikaren kopuruek ((Baztanen %80 eskualduna) azpian dagoen errealitate anitza eizkutzen dute: hizkuntzen arteko zer egoera desorekatua dagoen, eta baztandarrek zer bizipen eta kategorizazio ezberdinak dituzten eskuararekin eta gaztelaniarekin. Erraterako: Baztanen egindako kale neurketen arabera, ikusiko dugu orokorrean haurrek eta zaharrek eskuaraz egiten dutela, aldiz, gazteek eta helduek arras erabilera sozial apala dute. Baina badakigu haurrek eta zaharrek eragin sozialik ttikiena duten gizataldeak direla, ez baitira ez erreferentzia taldeak (ez dira produktiboak, ez dute potenterik, menpekotasun sozial eta ekonomikoan bizi dira...) eta gazteak eta helduak batez ere, gizarte jardueretan (ekonomiko, laboral, komertzial eta politikoetan) buru dira. Orduan, horrek guziak bide ematen digu errateko Baztanen eskuararen erabilera soziala bazterrekoa edo marginala dela. Baztandar helduen gizataldea anitza da, prozesu gisa

aztertu behar dugu: orokorrean, hiztun hauei beren lehen hizkuntzaren –eskuararen– pertzeptzio kulturala eragotzi zaie, elebidun arras deskompentsatuak dira, eta anitzetan eskuara eremu informaletik kanpo erabiltzeko (idazteko) ezinduak. Hiztun hauetako anitzek hizkuntza aldaketa (eskuara zenbait eremutan utzi eta gaztelania erabiltzen hastea) bazterketa edo marginazio sozialetik ateratzeko bide gisa ikusi dute, eta batzutan, gaztelania erabiltzearen p

Baztanen eskuararen erabilera soziala bazterrekoa edo marginala da.

derioz (eta eskuaraz ez erabiltzeagatik) eskuaraz solasteko gaitasuna galdu dute. Bertakoez osaturiko gutxiengo erdaldun horren presentzia: elebitasun indibidualetik gaztelaniazko elebarkartasun sozialerako aldaketa prozesua ulertu beharra dago. Alegia, Baztanen hasmentan zenbait herritar gaztelania ikasi eta erabiltzen hasi ziren bereizgarri sozial modura, eta horren ondorioz, urteen buruan, elebidun ugari egon arren, eskuararen erabilera soziala bazterrekoa bihurtu zen. Baina prozesu horretan, gakoak ez da hizkuntza, gakoak ideologia da: hizkuntza dela eta hiztunen arteko mailakatzea eta aukera sozialen merkatua hizkuntzabaten mesederako legitimatzen duena, hots, hizkuntza ukapena naturalizat ikustarazi nahi diguna.

 **Pello ASTIZ** EHko zinegotzia

Su-etenaren amaierari buruzko gogoetak



1998ko irailen ETAk su-etenaren iragarri zuenean, nolabaiteko harridura eta aldeberean poza ere

sortu zuen nere baitan, zeren, hondarreko urte hauetan ETAk eraman duen jarduera armatuak ezinegon sortzen baitzidan, alde batetik arrazoi etikoak zirela medio, eta bertzetik, politikoki ekintza aunitz ezkerrean eta abertzaletasunaren kontrakoak zirela iruditzen zitzaidalako. Nere irudikoz, su-etenak itxarobide aunitz sortu zituen abertzaleengan, Lizarra-Garazi akordioari indarra eman zion eta gero, Udalbiltza bihurtukozen mugimendua ere bizkortu egin zuen. Bertzaldetik, erran behar da PPren Gobernuaren jokaera erabat arduragabea eta bortitza izan dela, ez bakarrik presoen gaian eta amnistiaren inguruan ezer mugitu ez duelako, baizik eta Euskal Herriko gizartearen gehiengo batek, zilegitasun guztiarekin, aldarrikatzen dituen eskubideen aurkako guda iragarri duelako. PSOEn jarrera ere, bere ñabardurekin, ez da aunitz aldendu PPK erran edo egin duenetik, batez ere hondarrean aipatutako gai honi dagokionean. ETAk bere su-etenaren amaierako eman dituen arrazoiaren artean, bi nabarmentzen dira nagusiki: alde batetik, nazio eraikuntzan EAJ-EAK izan duten epelkeria eta bertzea espainiar eta frantziar gober-

nuek agertu duten jokabide bortitz eta arduragabea. Argi dago EAJ-EAK aunitz gehiago egin zezaketela, baina, azken urte hauetako beuren jarduera politikoa kontutan hartuz gero, nik behintzat, ez nuen aunitz gehiago eginen zutenik espero. Gobernuaren, eta batez ere, Barne Ministroaren jarrerari dagokionean, ez dago zalantzarik, hurbiltasuna eta elkarriketa bultzatu beharrean, guztiz alderantzizkoa egin dutela, presoen egoera eta sakabanaketa bere horretan ja-

Oraindik abudo samar da ekintza armatuak itzuliz gero zer gertatuko litzatekeen jakiteko, baina, nere ustez, oztopo eta atzerapauso handia izanen litzateke, ilusioz beteta egiten ari zen bide horretan jarraitzeko.

rraitzen dute, beuren legea ere ez dute betetzen.

Modu guzitan, nere ustez, ETAk birplanteatu egin beharko luke bere hondarreko iragarpena, uste dut euskal gizartearen zati handi batean, eta batez ere, ezker abertzalearen inguruan pilatzen ari zen jende aunitzen inguruan zalantza eta atsekabea sortu dituela ETaren erabakiak.

Oraindik abudo samar da ekintza armatuak itzuliz gero zer gertatuko litzatekeen jakiteko, baina, nere ustez oztopo eta atzerapauso handia izanen litzateke, ilusioz beteta egiten ari zen bide horretan jarraitzeko.



Gara 99ko azaroak 30

«Gure historia sistematikoki ikertzeko plangintza bat falta da»

«Euskal Herriko historiografiaren %90a edo gehiago Estatu espainiar eta frantsesen ikuspegitik idatzia dago».

Bixente SERRANO IZKO
Historialaria
Aitzina
99-11-30

«Oraindik 15-16 urte ditugu, baina ahalik eta urrunen iritsi nahiko genuke. Etorkizunari dagokionez, Euskal Herrian talde ezaguna izatea gustatuko litzaiguke».

'Gorramendi 10'
Batzango musika taldea
Nafarkaria
99-12-10

◆ Nola aurkitu duzu herria?

❖ Politagoa. Herria asko itxuraldatu da, eta baserriak ere asko berritu.

◆ Eta zure burua herrian?

❖ Naizen naizenetik, eta, batez ere hemendik urrun egon naizen urte luzeetan, naizena: nere txokoko herritarra.

◆ Zer ikusten duzu premiazkoena herrian?

❖ Langabezia arazorik ez egon arren, lantoki bat sortzea herriko biztanle jeitsiera geldiarazteko.

◆ Zer iruditu zitzaizun egindako harrera?

❖ Betirako gogoan izango dudan eguna, eta herritarrei bihotzez eskertzen diedana.

◆ Zer edo zer positiboa atera duzu kartzelako egonaldi luze hortatik?

❖ Urte luze hauetan jende askoren laguntza eta maitasuna izan ditudanak. Negatibo gauza bakarra, gartzelan hil zaizkidan lagunkideak.

◆ Asmo bat:

❖ Euskal Herriarengatik borrokatzea amnistia lortu artean. Euskal preso eta errefuxiatuak etxeratzea. Askatasuna eta benetako bakea Euskal Herrian amnistia lortzean izango baitugu.

◆ Amets bat.

❖ Udaletxea berriturik ikustea.

◆ Emakume bat.

❖ Ama.

◆ Gizon bat.


❖ Aita.

◆ Zerk kentzen dizu loa?

❖ Nere lagunak gose greban egoteak beste behin ere.

◆ Bide egokia al da Lizarra-Garazikoa?

❖ Horixe dirudi: LAB-ELA arteko akordioa izan zen lehenengo urratsa, Lizarra-Garazi bigarrena; hala ta guztiz ere, lan asko dago egin beharra, guztiok, denok konprometitu behar dugu eguneroko lan honetan (barauak, itxialdiak, manifestazioak...) gure (guztion) helburua lortu artean: AMNISTIA.



Juan Miel APEZETXEA

GOIZUETA
Preso-ohia

egin zaitez harpidedun

URTE OSOKO TARIFA (BEZ barne):

Hego Euskal Herria 47.500 • Ipar Euskal Herria 59.000 • Espainia 47.500 • Europa 59.000 • Amerika-Afrika 145.000

Izen-abizenak N.A.N Tfnoa:

Helbidea Posta Kodea Herria Herrialdea

Ordainketa mota: Bankua Taloia Transferentzia Giro postala

(Banku bidez ordaintzekoak betetzeko) Banku edo aurrezki kutxa

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Titularra Tfnoa: Helbidea

Harpidetza-orria bete eta bidali helbide honetara:

Baigorri Argitaletxe, S.A. • Portuetxe, 23 - 2.A • 20018 Donostia (Gipuzkoa)

Eskualdeko borts zerritegi saritu dituzte Porc D'Or lehiaketan

Begoña Sanzberro almandoztarrak bi domina etxeratu zituen

TTIPI-TTAPA

Porc D'Or lehiaketan, Espainia osokomila zerritegi baino gehiagok parte hartu zuten. Finalera ailegatu ziren 117en artean 18 Nafarroakoak ziren. Azkenean, banatu ziren 40 sarietatik sei eskualdeko borts abeltzainek eskuratu zuten.

Almandozko Begoña Sanzberrok bi domina lortu zituen: bata, urrezkoa, erditzeen arteko denbora tartearengatik eta bertzea, zilarrrezkoa, zerrikume kopuruarengatik. 1996an bertze bi sarierdietsibazituen ere, «*ilusio handiz*» hartu zituen sari berriak. Begoñak 40 zerrama ditu baserrian, baina 70 jartzea pentsatua du.

Iturengo Isidro Bazterrikakurrezko bertze domina bat etxeratu zuen, 30 zerrama baino guttiagoko baserrietan lortutako zerrikume kopuruarengatik. Azken urtean zerrama bakoitzeko 26 zerrikume lortu ditu, «*normala hogeita bidenean*». Bazterrikak



Begoña Sanzberro, Francisco Martin, Miguel Arizaleta, Isidro Bazterrika, Manuel Ormart eta azken honen emaztea. Diario de Navarra

lehendik ere bertze bi domina eskuratuak zituen Porc D'Or lehiaketan.

Elizondoko Manuel Ormart zerri-hazleak ere jaso zuen bere saria. Zehazki, 31 eta 150 zerrama bitarteko zerritegietan bizirik sortutako zerrikume kopuruarengatik brontzezko domina hartu zuen. Azken urtean, zerrama bakoitzeko hamabi zerrikume bizirik sortu dira, banaz bertze. Manuelek 140

zerrama ditu baserrian eta 63 urte bete baditu ere, ez du erretiroa hartu nahi, «*lanean pozik nagoelakoz*».

Miguel Mari Arizaleta, 35 urteko arizkundarrak zilarrrezko domina eskuratu zuen, 30 zerrama baino guttiagoko baserrietan lortutako zerrikume kopuruarengatik. Zehazki, zerramabakoitzeko 25 zerrikume lortu ditu, Orabidea aldeko baserrian.

Azkenik, Lekarozko Sagrario Arrupeak, 31 eta 150 zerrama bitarteko granjetan bizirik sortutako zerrikumeen kopuruarengatik urrezko domina erdietsi zuen. Bere saria Francisco Martín Mendiburuk jaso zuen.

Porc D'Or lehiaketaren sari banaketa beti Katalunian egin izan da aurrean. Aurrean, Gorraizko gazteluan egin zen azaro bukaran.

Eskualdeko hiru errepidetako lanen finantziazioa onartu du Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko hiru errepidetan egin beharreko lanen urtez urteko finantziazioan zenbait aldaketa onartu ditu Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikabidetakoko kontseilariak.

Honela, Zozaia eta Doneztebe tarteko errepidetan, 17'900 eta 24'146 kilometroen arteko lanetan 964.525.000 pezeta erabiliko dira heldu den urtean; 1.317'4 milioi pezeta 2001. urtean eta 622'309 milioi pezeta 2002. urtean.

Arriaizko saihesbidearen lanetarako 242.811.000 pezeta bideratuko dira aurrean eta 50 milioi pezeta 2000. urtean.

Zugarramurdira doaien NA-4401 errepidetaren hobetzeko eta zabaltzeko 125.962.000 pezeta emanen dira aurrean eta 138.974.000 pezeta heldu den urtean.

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.

© 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA



MOLDAKETAK KONPONKETAK

RETOUCHERIE

de *Manuela*

Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan)
© 943 660 292 • IRUN



© 948630052 • Zalain • BERA



Altzate, 19 • 948630786 • BERA

Hamabi milioi terdiko aurrekontua izanen da kulturarako 2000. urtean

Aurtengoarekin konparatuz, %41ean loditu da heldu den urtekoa

ASIER GOGORTZA

Berako Kultur Batzordea osatzen duten taldeek heldu den urterako proiektuak aurkeztu zituzten azaroa hondarerrako, inoiz baino lehenago, beraz. Denetara 12,5 milioiko eskaera egingen diote Udalbatzari, eta ia segurua da honek Kultur Batzordearen eskaria onartuko duela.

Kultura munduan mugitzen diren talde guziek bilkura pare bat egin zituzten aurrekontuak finkatzeko, izan ere, 15 milioitik goitiko baitzen lehendabiziko eskaera. Dena den, bigarren bilkuran gerrikoak pixko bat estutu eta diru kopuruak murriztea lortu zuten den artean. Hala ere, 12,5 milioi pezeta diru aunitz da, kontuan hartuz aurtengo aurrekontua 8,7 milioikoa zela. Guzi honek Kultur Batzordearen funtzionamendu ona erakusten du, eta aldiberean, eskertzekoa da Herriko Etxeak kulturaren alde egiten duen apustua.

GISA GUZIETAKO EKITALDIAK

Kultur Batzordeak heldu den urterako presatu duen egitarauari begiratuz, kulturaren arlo



Suak kixkali du Landaborda baserria

Abenduaren 3ko gauean suak hartu zuen Malet ostatuaren gainekaldetan dagoen baserri hau, eta argazkian ikusten denez, lau pareta bakarrik utzi zituen xutik. Ez da segurutik erraten ahal zerk sortu zuen sua, baina instalazio elektrikoan zirku itulaburren bat gertatu zela pentsatzen da. Zorionez, momentu horretan ez zegoen inor etxean.

Landaborda baserria Bastida baserriko Urbano Errandonearena da, baina duela 9 urtebete Jose Mari Remiro maizterrak hartua zuen errentan. Dirudienez, baserria aseguratu omen zegoen, baina pentsatzekoa da seguruak ez dituela suak egindako kalte guziaz ordainduko.

gehienak ukitzea lortuko dela antzeman daiteke: erakusketak, antzerkia, musika, dantza, zinea, hitzaldiak...

Zerbait aipatzekotan, erranen dugu Euskara Batzordeak "El florido pensil" antzezlan famatua Berara ekartzeko asmoa duela, eta bertetik, Berako rock taldeek zenbait kontzertu eta as-teburu osoko jaialdi bat antolatzeko dirulaguntza eskatu dutela.

Pertsonaia

Euskal Kantu Txapelketako finalean

Larunbat honetan, Donezteben, Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren finalean lehiatu zen 15 urteko neska gazte hau. Lehendik aunitz parte hartua zuen Haur Kantu Txapelketan, baina heldu artean aritzen den lehen aldia dzuen. Bakarlari gisa aritu zen Estibalitz, eta Benito Lertxundiaren "Primaberrako liliak" abestia kantatu zuen. Halere, gitarra eta sintetizadore baten laguntza izan zuen. Finalera ailegatzea bakarrik sorpresa ikaragarria izan omen zen bereztat.




Estibalitz AGIRRE

Juan Gorritiren erakusketa ikusgai dago

Joan den abenduaren 17tik zabalik dago Juan Gorriti artista ezagunaren margo eta eskulturak biltzen dituen erakusketa. Berako Kultur Etxean ikusten ahalko dira, astetartean arratsaldeko 6etatik 8etara, eta igandetan, berriz, goizeko 11etatik 1etara. Labiaga ikastolak antolatu du erakusketa.

Bertzalde, Lamixine antzerki taldeak abenduaren 28an idekiko du Berako jendearen erretroatoez osatutako erakusketa. Iamotenean egonen dira ikusgai, abenduaren 28tik urtarilaren 6ra, arratsaldeko 6etatik 8etara.



ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekarietza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

PINTURAS LEGUIA S.L.

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466

Eztegara 26, 2.C - BERA

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA

Sekulan baino behi gutiago aurkeztu dira aurtengo ferietan

71 zaldi plazaratu ziren eta behiak eta ahariak berriz, bederatzina

AITOR AROZENA

Ofizialki bortzehun-
garren urteurrena bete-
tzen zuten feriek ez di-
ra plazara aurkeztutako
behien kopuruagatik
historiara pasatuko.
Bederatzi behi bertze-
rik ez ziren aurkeztu.
Holandesetan, hiru sa-
riak Abaskenera eraman
zituzten Angel eta Iñigo
Altzugarai aita-seeek.
Suizetan, Xarutako Jose
Luis Oronozek aurkez-
tutako behi bakarrak
eraman zuen sari nagus-
ia eta haragitako behie-
tan, Berreuko Jose
Antonio Priorentzat
izan ziren bi lehenda-
biziko sariak.

Zaldien artean aldiz,
bazen aukera, hirutan
hogeita hameka azien-
da aurkeztu baitziren.
Bederatzi behiak hiru
multzotan banatuak
zeuden bitartean, 71 zal-
di hauek sariketa baka-
rrean lehiatu ziren. Iaz
bezala, aurtan ere Bor-
daendarako Aitor Otxo-
tekok etxeratu zuen le-
hen saria. Bigarrena,
Jose Antonio Andueza-
rentzat izan zen eta hi-
rugarrena Txapeltegiko
Jose Mari Telletxearen-
tzat.

Ahariak ere, bertze
urteetan baino gehixe-
ago aurkeztu ziren, be-
deratzi. Javier Oiartz-
balenakeraman zuen le-



hen saria, Fermin Eli-
zondorenak bigarrena
eta Martin Altzuga-
rairenak hirugarrena.

Udal paperek ez dute presoak Euskal Herriratzea eskatuko

Herriko Etxeko pa-
peretan eta zigiluetan ez
da presoak Euskal
Herriratzeako eskaririk
eginen. Euskal Presoak
Euskal Herrira Plata-
formak egindako es-
kariaren aurka eman zu-
ten botua PNV-EAko
zinegotziek eta alde
EHkoek. Alkatearen
erranetan «Udalak sen-
sibilitate guzien alde
egin behar du lana, de-
nak errespetatuz» eta
ondorioz, orain arte
Udalak duen zigilu ofi-
zialarekin segitzea pro-



Zaldiak eta behorrak aunitz ikusi baziren ere, behi gutti izan ziren plazan. Normalean ikusten ez diren astokumeak eta antxumeak ere izan ziren ikusgai.

Argazkia: Aitor

posatu zuen. EHko or-
dezkariek ez zuen sine-
tsi sentsibilitate ez-
berdinenen: «Udaleko al-
derdi guziak Platafor-
man sartuak daude,

abertzaleak dira izenez
eta Plataformaren mo-
zioaren aurka agertu di-
ra. Sentsibilitate bat
errespetatzen dute, bai-
na ez bertzea».

flash

Sokatira taldea berriz ere txapeldun

Nafarroako 680 ki-
lokoaren jabe egin
zen lehenik Sunbi-
llakosaio bakarrean,
gero 640 eskuratu
zuen hirusaio eta anti-
raldi bakar bat ere
galdu gabe eta orain
600koa eskuratu du
(lehendabizikosaio-
an Aresoren kontra
galdu bazuen ere, hu-
rrengo bietan nagu-
si izan zen). 560koa
abenduaren 18an jo-
katzeko auzen Betelun
eta hau irabaziz ge-
ro, inoiz lortu ez du-
ten marka lortuko lu-
kete Beti Gazteko ti-
ralariek, Nafarroako
txapel guziak jan-
tea. Euskal Herriko
560 kiloko txapel-
ketako lehen saioa
eta finala Lesakan
egitekoak direla kon-
tuan hartuz, hor ere
itxaropentsu egon
behar eta azkenik,
otsailaren 24 eta
25ean, Holandako
Slagharen herrian jo-
katuko den Munduko
txapelketan ariko di-
ra.

Izotzaldeako ur-hornidura lanak

Berako Arkaitza en-
presak eginen ditu
65.302.390 pezeta-
ren truke (hasierako
aurrekontua baino
lau milioi gutiago).
Herriko Etxera aur-
keztutako bi propo-
samen ekonomiko
arte onena zen
Arkaitzarena.

kixkur

ileapaindegia

Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behe
LESKA

Txema Etxarte

Zolen akutzilatze eta
bernitze profesionala

948 637439 • 670 215604 • 31700 LESKA

ANA

Janaridenda

Bittiria, 41 • 948637518
LESKA

**BEKO
ERROIA**

Lore eta landareak
948 63 78 26
Frain auzoa • **LESKA**

ETXALAR



80 urtekoek omenaldia jaso dute

Xabierko S. Frantzisko egunean, Larraburua Elkarteak 80 urte aurten bete dituztenei omenaldi apal baina beroa eskeini zien, hondarreko urteetan ohitura duen bezala. 92 lagun bildu ziren bazkaltzera, eta beraien artean 80 urtekoak, Elkarteak gonbidatuak. Ondotik, oroigarri bana eman zien.

igandez, eta Arantzako bazkariarekin akautu.

Partxis txapelketa ere hasia da

Larraburuko mus txapelketaren hasia aipatu genuen aitazinekoan. Musa soilik ez da hasi, ordea. Urte batzuz beranduago hasten bazen ere, aurtenez da horrela izan, egun berean partxisako norgehiagokak bete baitzituen arratsaldeko orduak Larraburuan.

Neguan ere turista ugari

Abenduaren lehen egunetako zubi luze horretan, kanpotar ugari ikusi dugu herrian berrera. Landa-etxe guziaz beteak egon dira, eta asteburuetan ere berdin gertatzen da, nahiz eta negua izan. San Frantzisko eta Ama Birjin eguna arteko tartean eguraldi ona egin bazuen ere, eguraldi txarra gaur ez da oztipo jendea etortzeko. Hainbat landa-etxetan asteburu guziaz edo ia guziaz galdetuak daude. Eta antzekoa gertatzen da jatetxeetan.

Nafarroako Euskararen Legea hobetzeko kanpaina hasi da

Nafarroa osoan 25.000 firma bildu nahi dituzte

PELLO APEZETXEA

Nafarroako Euskararen Legea zenbait puntutan hobetzeko eskatuko zaio Parlamentuari. Errate baterako, euskara nafar guzientzako ofi-

ziala izatea. Gaurko legearen arabera, Nafarroako zati batean bakarrik baita ofiziala. Horretarako, hainbat kultur elkarte biltzen dituen Oinarriak-ek 25.000 firma biltzeko

kanpaina hasi du, Nafarroa osoan. Etxararren ere firma emateko aukera izanen da ondoko egunetan. 18 urte beteak eta Nafarroan biltzea dira firmatu ahal izateko kondizioak.

Presoen aldeko ibilaldia Etxalarren hasi zen

Azaroaren 27an, goizeko 9etan, eman zitzaion hasiera presoen aldeko Mendi Matxari. Etxalarko plazan salda beroa hartu ondotik, herrian itzulia egin zuten. Gero, Bera alderako bidea hartu zuten, malda goiti. Bortzirietako Presoen aldeko Plataformak prestatua, bortzhe- rriak zeharkatu zituen ibilaldiak larunbat eta

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

KATTU
 ostatu - jatetxea
 Plater konbinatuak eta menuak
 © 948627573 • LESAKA

IRU BIDE

 EREBTEGIA
 Tfnoa: 948 637 127
 LESAKA

SAROB
 okindegia
SANDERS Pentsuak
 Eztegara 41, Tfnoa: 948 63 08 99 - BERA

MIURULA

lore denda
 Albistur, 39-K
 ☎ 627542
 LESAKA
 • bitxikeriak •
 • opariak •
 • enmarkazioak •

OBRA PROIEKTUAK
 ✓ Etxe berriak eraikitzeko
 ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
 ✓ Urbanizazio proiektuak
 ✓ Obra-zuzendaritza
 Udaldako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
 arkitektura bulegoa
 Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

BORTZIRI
UNSION ANAIK
 sukalderako halizariak
ERAKUSKETA
 Bureau etxea • LESAKA
 Tel eta Faxa: 948 637 266

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

Armairu enpotratuen
erakusketa Bittiria
karrikan



OFERTAK LOGELETAN



**LOGELAK
EGONGELAK
TRESILLOAK
KUTXAK
BESAKULAK...**

ERAKUSKETA Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780

LESAKA

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!



- Ahateak
- Izoki, amuarrain eta babailuak
- Janari prestatuak
- Ahate hegalarak
- Ahate izteerak
- Urdaiazpikoa

Zorionak eta Urte Berri On!

MARTIKO

ALKAIAGA INDUSTRIALDEA • © 948 625 016 • FAXA: 948 625 036

BERTIZ

Hemen bizi eta erosteko deia egin du denden elkarteak

Partzuergoko komertzioetan erosten dutenen artean sari ederren zozketak eginen dira

TTIPI-TTAPA

Bertiz Partzuergoko Merkatarien Elkarteak ingurukodendetan erosteko sentsibilizazio kanpaina bati ekin dio, «Hemen bizi, hemen erosi» lemapean.

Bere kideak laguntzen gero eta lan handiagoa egiten ari da Merkatarien Elkarteak. Orain arte, Eguberrie-

tako kanpaina bat egingen zen, publizitatea eginez eta sariak zozketatuz. Iaz, 50.000 pezetako erosteko bonoak zozketatu ziren eta jendeak harrera ona eman zion ekimenari.

Aurten ideia berri batekin datoz Merkatarien Elkarteak. Eguberrietako kanpaina eta zozketekin segituko dute, baina bertzelburu bat



Merkataritza egotea edo ez, herri bat bizirik edo hilik egotea suposatzen du, Bertizko Merkatal Elkartearen ustez. Artxibokoa

lortu nahi dute: «Bertako jende guztiari, gure herrietako jendeari, gure komertzioetan erosteko erratea». Bertizko merkatarien ustez, «argi dago gure herrietako dendetan de-

netarik dagoela, eta arras prezio onetan. Kanpora eroatera joan baino lehen, gure herrietan begiratu beharra daukagu, eta posible izanez gero, bertan erosi».

FIDELTASUNA SARITZEKO ZOKKETAK OTSAILAREN 29 ETA APIRILAREN 11 N

Fideltasuna sarituko dute aurten eta horretarako, bono batzuk emanen dituzte Elkarteak dauden dendetan. Bono hauek, Bertiz Partzuergoko Merkatarien Elkarteak dendetan eskatu behar dira. Elkarteak edozein dendetan erosteko haundi xamar bat egingen denean, barneko aldean dauden koadroetako batean kuño bat paratzea eskatu behar da. 20 koadroak betetzear, komertzio batean utzi edo Bertiz Partzuergora bidali behar dira. Urtarrilaren 15etik martxoaren 31 arteko epea dago bonoak betetzeko.

Ailegatzen diren bono guzien artean bi zozketa egiten dira, bata otsailaren 29an (50.000 pezetako bierosteko bono eta 35 opari) eta bertze apirilaren 11n (50.000 pezetako hiru erosteko bono eta 35 opari).

Merkataritza egotea herria bizirik mantentzea dela azpimarratu dute antolatzaileek.

Eguberrietako opariak

Alüstiza
Nagusia 12 - DONEZTEBE
Tel.: 948 450113

Jostailuak • Perfumeak • opariak
Zorionak eta Eguberri On!

Eguberri besta zoriontsuak opa dizkizuegu

EMAKUME ETA GIZONEN DAKO ARROPA ETXEBARNEA

Belzunegui
arropadenda

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO
Tel.: 948 580 056

DENDA TIENDA

NAFRRO

Nafarroako produktu bereziak
Artisau produktuen denda
Eguberrietako loteak eta saskiak

Altzate 14 • BERA • Tel.: 948 631151

IRRINTZI

Eguberrietako eta Urte Zahar gaueko martxa

OSTATUA

Merkatarien karrika 28
© 948 451826
DONEZTEBE

IGANTZI

Martxan dago Igantzin ere Oinarriak erakundearen sinadura bilketa

Bigarren saria eskuratu zuen Kontxi Almandozek marrazki lehiaketa batean

OSKAR TXOPERENA

Hasia da dagoeneko, "Oinarriak" taldeak antolatuta, euskararen aldeko sinadura bilketa Nafarroa osoan. Igantzin Euskara Batzordeak hartu du bere gain lan hori eta azkeneko bileran Udaltzako erakundeak aho batez agertu nahi izan du firma bilketaren alde. Hori dela medio, bando bat paratuko du herritar guztiak kanpainarekin bat egitera animatuz. Nafarroa osorako euskararen ofizialtasuna aldarrikatu edo eskatu nahi du kanpainak.

Kontxi Almandoz saritua marrazki lehiaketan

Ez da orain irabazi duena lehendabiziko saria Kontxi Almandozentzat. Oraingoan, ordea, marrazki batengatik



Kultur Egunak

Aurtengo Kultur Egunak ere joan zaizkigu. Zenbait ekitaldi espero zitekeen erantzuna izan bazuen ere, ezin gauza bera erran bertze batzuetaz. Ikusia dago jendeari aunitz gostatzen zaiola etxetik ateratzea. Argazkian ageri den Ataitz taldeak, errate baterako, jende gehiagoren atentzioa merezi zuen, bere berezitasun eta kalitatearengatik. Zer egingen da! Arg.: Oskar

eman diote. Gutxiti fisikoaren Koordinakundeak antolatutako lehiaketan, 208 lanen arte-

an, bigarrena izan da epaileen estez Kontxik egin duena. Saritzat 15.000 pezeta balio

duen materiala eta diploma eman dizkiote. Zorionak eta segi horretan!

Auzoetako kartelak paratu dira

Irisarri, Unanu, Frain eta Piedade Gaina auzokobaserrri, bide, erreka eta bertze zenbait xehetasun agertzen dituzten kartelak paratu dira aipatutako auzoen bide-sarreretan. Bertan, auzohorietako zenbait paraje eta baserriren argazkiak ere ikusten ahal dira.



Baserrri eta bideen informazio zehatza ageri da karteletan.



lrungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinak Anguloak Orna antzinak Lehoak Ateak Arkuak Pilareak	Tsiminiak Erilaizak Moldurak Zokaloak Hilarriak Marrazkiak
--	---

"Abuzkoak" Zeharantzerako Mezioa Tzuperrak

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

FOTOKOPIAK txuri beltzean KOLORETAN PLASTIFIKAZIOAK ENKADREKUNTZA SKANERAK KOPIAZAZIOAK		DISEÑU GRAFIKO INPRENTA LANAK SERIGRAFIA ERROTULOAK PUBLIZITATEA
KULTUR ETXE AURREAN		
BERA		
31710 BERA Tel-faxa: 948 63 15 21		

	CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRAZTUN S.L.	Makinaria eraikuntza Moldaketak eta despiezea Mantenimendu mekanikoa Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313		

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

	J. RAMOS Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA	

	ZALAIN J A T E T X E A	Zalain Auzoa © 948 631106 BERA
EGUNEKO MENUA FTA KARTA		
Boda eta banketeak ematen dira		

Euskal presoen eskubideen aldeko martxa herrian akautu zen

Igeriketa proiektua aitzinera atera nahi dute Bortzirietako irakasleek

ELIXABET ETA GARBIÑE

Bortzirietako Euskal Presoak Euskal Herrira Herri Ekimenak antolatutako mendi martxa azaroaren azken igandean ailegatu zen herrira eta ongi etorri gisara, herriko gazteek burrunbada antolatua zuten. Herrian barna kalejira egin zen moduhorretara eta Herriko Etxe parean akautu zenean, Jose Ramon Amorosal-kateak ongiatorria eskaini zien ibiltariei eta euskal preso politikoen egoera salatu zuen. Eguerdian, Zahar-Txokon 50 pertsona elkartu ziren bazkaltzeko etabertan Gotzon Zabaleta Mendia herrian errolatua dagoen presoaren eskutitza irakurri zen. Preso hau gose greban zegoen orduan, nahiz eta gero utzi behar izan zuen osasun



Bortzirietan barna egindako martxa eta herrian egindako manifestaldia herriko plazan akautu zen.

Argazkia: Elixabet

arazoak zirela medio. Enkarna, Sotero Etxandi preso arraiotzarraren neskalagunak ere solas batzuk egin zituen.

Santaketan aterako dira gazteak

Gazten Asanbladako kideek aurten ere Santa-

ketan ibiltzeko gogoa azaldu dute eta horrela bi egunez eginen den besta hau honela banatu dute. Abenduaren 25ean, Eguzkialdea, Bordalarrea eta herria egiteko intentzioa dago eta urtarrilaren Sean, berri- rriz, Aientsa eta Azki-

larrea eginen dira. Hala ere, aldaketaren bat baldin badago garaiz jakinaraziko da.

Irakasleen igeriketa proiektua

Bortzirietako ikastetxeetako soinketa irakasle guzietako proiektu bat

flash

Herriko Etxeko idazkaritza

Herriko Etxeko idazkaritzaren ordutegia aldatu egin dute, idazkaria Igantzira ere joanen delako. Horregatik, hementik aitzinera idazkaria goizeko 8etatik 11,30ak arte egonen da egunero.

Sonia Lizardiren marrazki saritua

Sonia Lizardi Errandonea herriko gazteak Nafarroako marrazki txapelketan hirugarren gelditu da. «Elbarrien oztopak» gaiari buruz egin behar zen marrazkiarekin 10.000 pezeta irabazi ditu, kirol denda batean gatatzeko.

aurkeztu dute. Igeriketaren garrantzia azpimarratzeaz gain, kirol hau praktikatzeko erraztasunak eman nahi dizkiete gazteei. Horrela, udaletan aurkeztu dute proiektu hau, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza jaso nahian.

LABEZAR
© 948631076 • BERA

ALBERGEA JATETXEA
© 948 634179
ARANTZA

LESACA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.

© 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

DROGUERIA MOLINERO

- DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA

Presoen aldeko ekitaldiak errepide nagusia itxi zuen Narbarten

Lau gazte gasolina-bidoi batzuetara kateatu ziren

TTIPI-TTAPA

Dani Aranaz, Francis Jorajuria, Eloi Jerez eta Iñaki Latasa gazteak atxilotu zituen guardia zibilak Espainiako Konstituzio egunean, Narbarten egindako presoen aldeko ekitaldi batean N-121 errepidea mozteagatik. Lau gazteak, gasolina-bidoi haundi batzuetara kateatu ziren eta bidea itxi zuten, bertze lagun batzuek «Presoak eta errefuxiatuak etxerat. Aski da» eta «Amnistia» zioten pankartak hedatzen zituzten bitartean. Igaro ezinik zeuden gidarien artean euskal presoen gose grebaren eta beraien eskarien berri ematen zuten idatziak banatu ziren. «Presoen dispersioa salatunahi genuen eta gure elkartasuna adierazi, batez ere bizilaguna dugun Sotero



Guardiazibila zakarki saiatu zen gazteak errepidetik ateratzen.

Argazkia: Jagoba Manterola

Etxandiri. Ekintza zuzenaren bidea hautatu dugu, alderdi aunitzek aunitz solastu baina deus gutti egiten dutelako presoen alde».



Olentzero egunaz gain, iñauteriak ere prestatzen hasiak dira gazteak

JOSUNE ETA ALBA

Eguberriak gainean ditugu eta aspaldixkotik Olentzero egunerako prestatzeko hasiak dira. Aurten, Olentzerorekin batera herriko musikari aunitz aterako dira, haur eta helduek herrian barna dabiltean bitartean giroa alaitzeko. Entsaioak larunbat eguerditan egiten aridira eta gaztetxo guztiak agertzeko deialdia luzatu dute antolatzaileek.

Iñauteriak

Eguberriak hurbil daude baina milaurte berriko iñauteak ere bertan daudenez, herriko gazteak mugitzen hasiak dira 2000. urteko iñaute berriak ahal bezain dibertigarri eta alaiak izan daitezten. Dagoeneko bilera hasiak dira eta koadrilen artean lanak banatu dituzte. Antolaketan lana handia denez, larunbathonetan, abenduak 18, bilera egin dute Ulibeltzak elkartearen.



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Amezia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

GAZTANDEGIA

LIZUN

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

H. Lopez itargintza

- Kalefakzioa
- Gas instalazioak
- Itargintza Industriala
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE



Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN

Tel: 948 45 04 91

DONEZTEBE

Santa Luzia eguna ospatu zuten Donezteben abenduaren 13an

Maria Eraso, 89 urteko jostuna omendu zuen Herriko Etxeak

PATXI IRIARTE

Abenduaren 13an Santa Luzia eguna ospatuzuten Donezteben, Udalak, Nafarroako Gobernua, Bertizko Partzergo Turistikoa eta Cederna-Garalurel-kartearen laguntzaz antolatuta. Ospakizunak aitzineko egunean hasi ziren, igande eguerdian Elizagibelako landan egin zen artzain zakur-zen lehiaketa eta antzarren erakusketarekin. Artzain zakur lehiaketan, Mikel Garaiaiar oiartzuarraren Mendi zakurra suertatu zen garaile. Bigarrena, Mikel Aizpurua oiartzuarraren Txati izan zen eta hirugarrena, Radako Angel Malónen Jai zakurra izan zen. Hauetaz gain, Carrascaleko Fermin Ainzua, Lakuntzako Alejandro Ibarra eta Quintin Alustiza aranoarraren zakurrek ere hartu zuten parte. Goizean haurren txaranga ibili zen herrian barna.

Egun nagusia, hale-re, astelehena izan zen. Meza Nagusiaren ondok, herriko jostunza-



Eratsungo Apeztegikoborda kixkali zuen suak

Eratsungo Apeztegikoborda baserria kixkali zuen abenduaren 9an izandako sute batek. Sotoan zeuden lau behorretatik bi hil ziren. Oronoz eta Leitzako su-hiltzaiak etorri baziren ere, ezin izan zuten sua itzali. Baserria Gipuzkoan bizi den senar-emazte batzuen zen eta bakarrik asteburuetan etortzen zirenez, ez zegoen inor erre zenean.

Argazkia: Zaldua

harrenari omenaldia eskaini zion Herriko Etxeak. 89 urteko Maria Eraso Alduntzinek zilarrezko titarea jaso zuen etxean, emozioaren poderioz ez baitzuen izan eliz ondoko plazara hurbiltzerik izan. Goiz guzian Malerrekako Artisauen Feria izan zen. Bertan ziren Victoriano Arzuaga

Urrozko jostuna edo zepela lantzen duen Jose Urroz oiztarra. Zubietako emakumeak ere hurbildu ziren taloak egitera. Doneztebeko Haur Hezkuntzako ikasleek ederki probextu zuten hori, txokolatz eta gasnaz betetako taloak hameketako gisara jan baitzituzten. Eguerdian, Arozena aita-alabak eta

Bittor Elizagoien aritu ziren bertsotan.

Arratsaldean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak ikustek aukera izan zuten haurrek. Ekitaldi hau Nafarroako Gobernuko Hizkutz Politika Zuzendaritza Nagusiak antolatu zuen, Doneztebeko Udalaren laguntzaz eta ikusmin handia piztu zuen.

Personaiak

Doneztebeko jostun zaharrenari zilarrezko titarea

Santa Luzia jostunen eguna probextuz, omenaldia eskaini dio Doneztebeko Udalak herriko jostun zaharrenari, 89 urteko Maria Erasori. «Arras kontent nago» zioen. Jostorratza eta titarea hartu eta ahizpa zaharrenearekin, Doloresekin, ikasi omen zuen ofizioa. «Jostun guziak berak erakutsizidan». Bizitza guzia jostungintzari eskaini dio Mariak, mandatuak egiteaz gain, irakaslea ere izana baita. «Garai batean lan aunitz egiten genuen, enkargu aunitz izaten baitziren. Ez bakarrik Doneztebekoak, kanpoan ere bezero ugari izaten genituen, Elizondotik enkargu pila bat ailegatzaren ziren».



Maria ERASO

Baztanen...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...

ESTHER FUNERARIA

LOREDENDA • GARDEN CENTER

Hilkutzak • Hilaotoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

FUNERARIA ZERBITZUAK

Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua

Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak

Tfnoa: 948637404 • **LESKA**
Tfnoa: 948450475 • **DONEZTEBE**

SOULE

Hileta artea

☎ 948 453 444
☎ 908 779 903
ARIZKUN

ARMUA

Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - **URDZUBI**



URTE ZAHARREKO AFARIAK

1 9 9 9

Urteberri on

2 0 0 0



IGANTZI
JATETXEA

Patea, urdaiazpikoa, kogolloak
antxoekin eta fritoak

Etxeko nahaskia eta
langostinoak plantxan

Solomilloa goarnizioarekin

Kaba sorbetea, tarta
eta turroiak

Kafea eta kopa

Urtezaharreko mahatsak

Kaba, Atondo ardoak
kotiloi boltsak

Pertsonako 4.500 Pta.

Tfnoa: 948 637 502
IGANTZI



Urte Zaharreko afariak aukeran
afal ondoko giroa alaitzeko
trikitalariak arituko dira.

Hamabietan mahatsak eta ondo-
tik...saski eder bat zozketatuko
da.

Goizaldera baratxuri zopak.

*Eskaerak egiteko
deitu lehenbailehen*

948 634 179 - ARANTZA



AMEZTIA
jatetxea

Iberikoak aukeran

Marisko koktela

Txangurro Krepa

Rape lomoak kokotxekin

Solomilloa Oporto saltsan

Piku biskuita txokolate kremarekin

Kafea, Likoreak, ardoa

eta Codorniu kaba

Zoriontasun mahatsak eta
kotiloi boltsa oparitzen dira

Pertsonako 7.000 Pta (BEZ barne)

Eskaerak abenduaren 29 arte

948 450028 • DONEZTE



HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR

Urtezaharreko AFARI BESTA

zatoz aisa pasatzera

Etxalarko Herriko Ostatua

bada jateko aukera.

Urtezaharra baduie eta

berria badatorrela

besta ederra egin zazu

ta urteberri on dizuela.

Tfnoa: 948 635 290

ETXALAR

ETXANDI
TXOKO
jatetxea

Iberikoak, arrain pudina saltsa
arroxarekin, ganbaeta baratxuri
freskoen nahaskia, ondoz betetako
piperrak eta langostinoak plantxan

.....
Salda

.....
Legatz kokotxak almejekin

.....
Solomilloa roquefort erara

.....
Limoi sorbetea kabarekin

.....
Turroi sorta

.....
Ardo bereziak, Codorniu kaba
kafea, kopa eta puroa

.....
Urtezahar mahatsak

Pertsonako 4.600 Pta.

Erreserbak 948 450 491
ITUREN

ZORIONAK

Malkorra

GOZOTEGIA
URREKIN EGINA
TURROIA ETA MAZAPANAK

Jaime Urrutia Telf.: 948 580 061

ELIZONDO

LESAKA
Behoko Plaza, 8 Telf.: 948 627 514

Lentzeria
Dene

KAXULA

Eguberrietako opariak

LESAKAKO SARRERAN

Tfnoa.: 948 637 558

Goya

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERRAMIENTAK

Altzate,5 Telf.:948 630 083

BERA

Altzari Mexikarrak eta opariak

PROIEKTU ETA ERREFORMAK



Iturlandeta, 3 Tfnoa. 948 630 672 / 656 746 769



kalotxa
zapatak eta
osagarriak

Kanttonberri, 6 Telf.: 948 681 516
BERA

Aprobaxatu
eguberrietako jaskontuak!!

**ZELA
KIROLAK**

Altzate, 6 BERA
Telf.: 948 630 598

Kalash



Bitxi eta erlojudenda Taller propioa



Kanttonberri karrika, 8 BERA Merkatu karrika, DONEZTEBE
948 630 750 948 451 519

Beatriz
ileapaindegia
Doneztebe

Eguberrietarako orrazkerak

Koloreak

Koloniak eta bitxiak

San Miguel Auzoa

948 450 922

DONEZTEBE



**Ostargi
Optika**

Bidasoa karrika, 8 Telf.: 948 630 753

BERA



MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENA

Euskara
Batzordea mintzo

Laguntzaile:
Nafarroako Gobernua

Malerrekako Ipuin eta Bertso-paper Lehiaketa

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bigarren urtez antolatutako Ipuin eta eta Bertso-Paper lehiaketan saritutako lanak aurkeztuko dizkizuegu gehigarri honetan. 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat zuzendutako lehiaketaren helburua euskaraz idazteko ohiturak sortu zein areagotzea da. Gai librean parte hartzeko baldintza bakarra eskatzen zen: euskaraz izatea. Sariak abenduaren 15ean banatu ziren Doneztebeko eskolan. Partehartzaile guzientzat txokolatada ere izan zen. Bertso-paper lehiaketan Beintza-Labaienera joan dira sariak. Maite Bertiz izan da garaila eta Oihana Mindegia bigarren. Ipuin lehiaketan Maite Bertiz beraren «Basoko Familia» idazlana izan zen onena eta Oihane Elizalde eta Alazne Untxalo iturendarrek idatzitako «Jatetxeko sukaldari jatorra» bigarren.

1. go Saria: Maite BERTIZ (8 urte)
Gaia: NEGUA

- 1 Negua alletzean egon bar etxean ola egongo gara oztu ezinean.
- 2 Neguan egiten du, kristorena hotza eta ez da jarri bar arropa hain motza
- 3 Elurra egitekin iñendu pelota ta gero egingo dut jendeari bota.
- 4 Nik elurra ittekin iñendut panpina ta izena zanendu elurrezko txina.




2. Saria: Oihana MINDEGIA (9 urte)
Gaia: NIRE BARATZA
Doinua: AMA BEGIRA ZAZU

- 1 Nik badudala lortzen kristoren baratza ailtzurarekin neri arrautu behatza.
- 2 Baratzetik ateri sartu da zaldi bat pixko bat geroxigo ikuskozu zenbat.
- 3 Mangera hartu eta baratza bustitzen solasa iduitu ta gizonikan etzen.
- 4 Atetzera joan ta zaldiak ostiko orain hanka hautsia izanen betiko.



FAMILIA



Behin batetan bazen basoan egurrezko etxetxo txiki bat eta han emakume bat, gizon bat eta bi neska txiki bizi ziren. Emakumeak Emili izena zuen, gizonak Bittoriano, alaba zaharrenak Lierni eta gazteenak Lorea.

Oso pobreak ziren eta egun batetan esan zuen aitak:

– Bihar baso honetatik atera behar gara. Ibiliz eta ibiliz: Egun batzuk pasako dira baina noizbait herri batera ailegatuko gara eta han etxez etxe ibiliko gara.

Eta halaxe egin zuten. Hurrengo eguna iritsi eta abiatu egin ziren. Bidean zoazela esaten dio Liernik Loreari:

– Lorea, nik gosea daukat, zuk ez ala?

– Bai, nik ere bai gosea daukat— esan zuen Liernik eta gero deitu zien gurasoei:

– Aita, ama... Loreak eta nik gosea daukagu.

Eta esan zuen aitak:

– Ba orain aguantatu egin beharko duzue, segituan ailegatuko gara herrira.

Hiru edo lau ordu pasa eta berriro esan zuten bion artean:

– Aita, ama... gosea daukagu. Zenbat falta da herrira ailegatzeko?

– Gutxi gorabehera ordu bat.


Eta ordu bat pasatu eta herrira ailegatu ziren eta esan zuten:

– Noiz hasi behar gara etxez etxe dirua biltzen?

Eta esan zuen aitak:

– Oraintxe bertan hasiko gara!. Eta segituan esan zuen aitak:

– Emili eta Lorea eskuinetik joango dira eta Lierni eta biok aurrera segituko dugu.



Eta hala egin zuten, Emili eta Loreak pixka bat ibili eta etxe polit bat ikusi zuten bi pistzinekin, bat txikia eta beste haundia, lorategi haundi bat eta esan zuen Emilik:

– Hemen diru asko izanen dute, hainbeste gauzekin.

Eta ziztu bizian joan ziren eta tinbrea jo zutenean ez zen inor atera eta orduan beste etxe batzuetara joan ziren eta esaten zuten:

– Kaixo, bai al duzue diru pixka bat ala janari pixka bat guretzat?

– Baina zuek nongoak zarete?

– Gu basoan bizi gara egurrezko txabola txiki batetan eta oso pobreak gara.

– Eta oinez etorri al zarete basotik herri honetaraino?

– Bai, oinez etorri gara di-

rua biltzeko asmoarekin.

Eta esan zien agureak:

– Itxoin pixka bat hemen, oraintxe ekarriko dizuet janaria eta diru pixka bat. Eta orduan Emili eta Lorea oso pozik jarri ziren eta gero agurea jaitsi zenean ekarri zien itxulapiko bat diruz betea eta saski bat dena janariz betea. Berriz hasi ziren ibiliz eta ibiliz eta azkenean topo egin zuten Bittoriano eta Liernirekin eta esan zuen Emilik:


– Lierni eta Bittoriano, gu bi etxetan izandu gara, batean oso aberatsak ziruditen zergatik bi pistzina, bat haundia eta bestea txikia eta lorategi eder bat zeukaten eta tinbrea jo eta ez zegoen inor ere ez, eta gero beste etxe batera joan gara eta agure bat atera zaiagu eta dirua eta jana eman di-

gu. Ba guk bost milioi irabazi ditugu eta zuek hiru milioirekin batera zortzi milioi eta pozik geratu ziren.

Hurrengo egunean pistzina zegoen etxera joan eta hiru milioi eman zizkien eta gero beste etxe batera joan eta ez zieten dirurik eman eta orduan beste etxe batera joan ziren eta lau milioi eman zizkien, orduan hamabost milioi zituzten eta herri hartan etxe bat erosi zuten, Bittorianok lana aurkitu zuen herrian eta Lierni eta Lorea herriko eskolara joaten ziren eta orduan herrian bizitzen ziren eta laugu asko egin zituzten eta oso pozik bizi ziren handik aurrera.



Maite BERTIZ



Behin batean Zalo izeneko sukaldari jator bat eta jatetxe batean hasi zen lanean.

Behin, Susana izeneko anare potzola, bere Jaimito sear argalarekin etorri zen, eta

odolkiak eskatu zituzten bazkaltzeko. Zalok, lehenengo eguna zuen bezero bati janaria prestatzen zuena eta saiatu zen goxoa prestatzen. Serbitzariak serbitu beharre-

an, berak serbitu zuen, goxo edo txarra prestatu zuen jakin nahi zuelako, eta Susanak esan zion:

– Nola prestatu dituzu odolkiak?, oso goxoak daude.

Orduan Zalok, sukaldariak esan zion:

– Odolkiak, betibezala, baina saltsa horiarekin. Lehenengo prestatzen ditudala, baina goxoak badaude...

Orduan Susanak harrিতa esan zion:

– Lehenengo aldiz prestatzen dituzula! Ba ez du ematen, oso goxoak daude eta.

Zalo presaka zebilen eta esan zion:

– Bueno, beste bat arte, agur, presaka nabil, bezeroak zai dauzkat.


Harrez geroztik jende asko joaten ziren jatetxe hartara eta diru asko biltzen zuten.

Sarritan neska bat joaten zitzaion jatetxera eta azkenean maitemindu egin ziren elkar. Neskak pentsatu zuen egunero jatetxera joatea bazkaltzera, baina Zalok bazuen beste neska bat gogoko eta lehengo neska, Joselontxa, pixkat baztertuta uzten zuen. Egun batean Joselontxak zera galdetu zion Zalori:

– Zergatik uzten nauzu baztertuturik?

Orduan, Zalok dena kontatu zion eta beste neskekin hasi zen ateratzen, bestea bazterrean utzita, eta Lorebinga zuen izena. Lorebinga oso polita zen, «modela» izandakoa eta Zalo berriz, puf! ezin da esan zein polita den. Denbora gutxi barru haurdun jarri zion Lorebingari Zalok, eta zortzikiak izan zituzten, lau mutil eta lau neska. Neskei izen hauek jarri zizkieten: Ane, June, Onea eta Aitziber, eta mutilei berriz: Lain, Lier, Erik eta Beñat.

Egun batean Lain eta Lier jarri garbigailuari xaboa botatzen telefonoak jo zuelako, eta xaboa bota bearrean arraultzak bota zizkieten eta Lorebinga etorri zenean arropa horiak atera zituen eta ez zuen erristik eman politak zeudelako. Badakizu umeak nolakoak diren gauza guztiak alderantziz. Mutilak oso politak ziren, Zalo bezalakoak, eta neskak Lorebinga bezalakoak, oso politak. Zalo oso pozik zegoen lau mutilak bera bezalakoak zirelako, eta Lorebinga ere bai lau neskak



be-
ra be-
lako zirelako.

Behin, gauza arraroak hasi ziren gertatzen etxean, mamu bat zegoelako, baina mamu jatorra zen, eta puskatuta zeuden gauzak konpondu egiten zituen. Oilaskoa jaten zuenean lurrera erortzen zitzaion eta txakurrak jaten zuen dena.

Mamuak laguna izatea nahi zuen baina azkeneko aspertu egin zen, ez baitzuen lagun onik harrapatu eta beste etxe batera joan zen.

Lorebingak mamua joan zenetik etxea pixka bat alde-rantziz ikusten zuen eta handik aurrera jo eta ke ibiltzen zen etxean garbiketarak egiten.

Zalok lana bilatu zuen beste jatetxe batean eta oso goxoak prestatzen zituen janariak eta behin Lorebinga joan zitzaion jatetxera bere zortzi umeekin, umeak oso formal egondu ziren, aitak lana bukatu arte baina handik aurrera...

Jatetxera jende asko joaten zen oso janari goxoa prestatzen zuelako eta oso merke saltzen zelako.

Azkenean mamua bezela aspertu egin zen baina ez laguna bilatzen ez zuelako! Jende asko joaten zelako eta lan asko zeukalako orduan lana utzi eta berak jatetxea jarri zuen eta "JOSELONTXO" jarri zion izena, bere lehengo izen gogokoena bezela eta Lorebingari asko gustatu zitzaion eta Lorebingak ere laguntzen zion ahal zuenean eta barrerako neska bat alokatu zuten Ane izenekoa eta oso ondo egiten zituen gauza guztiak, eta bezeroekin ondo konpontzen zen.

Lorebingak loredenda bat jarri zuen eta denbora gutxi

barru martxan jarri zuten. Martxan jarri bezain laster etxera eraman zituen loreak, eta lorez estalita geratu zen eta umeak, loreak ureztatzen jaritzen zituen. Umeak, nazkatuta zeuden loreak ureztatzeaz eta ama loredendara joan zenean umeak, loreak errekarabota zituzten. Lorebinga itzuli zenean galdetu zuen:

– Non daude nire loreak???

Eta Onekak esan zion...



– Errekan bañatzen. Eta Juneke parreri eutsi ezinik: –Bai, bai ederki ari dira bainatzen.

Lorebinga korrika joan zen loredendara urbil bai zeukan, eta lore mota asko ekarri zituen, adibidez: krabelinak, margaritak, larrosak, ortentxiak, alegriak, etabar...

Lorebinga loreekin nazkatu eta bera ere loreak errekarabota bainatzera bota zituen. Gero loredenda salgai jarri zuen eta Joselontxak erosi zion. Zalok ez zekien loredenda Joselontxak erosi zuenik eta esan zion: – Zer egiten duzu zuk hemen? eta erantzun zion: Ba, ... zure andregaiak niri saldu zidan loredenda eta oso pozik nago loredendarekin eta

zu ikusteaz. Nahi ahal duzu nirekin ezkondu???

– Zurekin, zurekin ezkondu? Erotuta al zaude, nik badut andregaiak, eta zortzi seme-alaba ere, eta nahiago dut Lorebinga zu baino: politagoa da, maitagarriagoa da eta ez da zu bezain eroa.



Horrela joan zen Zalo bere etxera, aserretuta. Etxera ailegatu baino lehenago jostailu ahuek erosi zituen: neskentzako Barbiak eta Barbien arropak. Mutilentzat berriz Accion man bana. Etxearen ondoan beste denda bat zegoen, jantzien denda bat eta Lorebingarentzat soineko bat erosi zion. Etxera ailegatu zirenean seme-alabei eta Lorebingari opariak eman zizkion.

Asko gustatu zitzaioten opariak eta denen artean afori berezi bat egin zuten, eta Zalok esan zuen: –Ez gara inoiz gehiago loredendara joango. Eta harrিতuta esan zion: – Zer gertatzen da ba loredendarekin?

– Ba hango neska badakizu Joselontxarekin batere gogoko. Gainera ez da zu bezain polita.

Lorebinga oso pozik geratu zen lehengo neskalaguna ez duelako maite, bueno maite ez baina ez zuelako harremanik elkarrekin.

Har ezgeroztik oso pozik izan ziren eta hainbeste urte pasa ziren eta batzuk andregai edo senargaia zuten.

Hala bazab eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila plazan.



Oihane ELIZALDE
Alazne UNTXALO

URTE BERRI
ON

Vendi
Galarregi
SUPERMERTATUA
Eguberrietarako behar dituzun jaki
eta edari guzti-guztiak !!
ELIZONDO
Santiago, 12 Telf. 948 580 005

Retegi
Gozotegia
Etzeko turroiak, mazapanak,
polboroiak. Erregetako roskoak. Txokolata
urrakin egina, pastak, tejak...
ELIZONDO
Santiago, 43 Telf.: 948 452 186

ALZURI
Elektragarailuak
LESAKA

EL DESVAN
Oaia
Dekorazioa - Opariak
Eskuz margotutako mogleak
Bilbao, 4 BERA Tfnoa: 948 638 154

LESAKA
Marian
mendiberri

Martzutzak
Arropadenda
Oparidenda
Etegora, 12 • BERA • Tfnoa: 948 631 425

AGERRA
arrandegia
gabonetako enkarguak
948 631 566
948 631 124
Sara karrika, 2 • BERA

ETXARTE



Bitxi eta erlojudenda

bistur karrika, 1 Telf.: 948 637 205 LESAKA

Bier

Ordenagailu salmenta eta konponketa
Informatika ikasta oak

Kanttonberri, 4 • BERA • Tfnoa: 948 631 083



MIGELENA

erlojudenda • bitxidenda
elektragarailuak



Amezitia karrika • DONEZTEBE • Tfnoa: 948 450 1

ARROPAK

Kamamila

ARROPADENDA

Merkatu karrika, 2
Tfnoa.: 948 451 528
DONEZTEBE

▶ %10 merkeago arropetan

MARELI
Jantzidenda

Sasoiko jauntziak
Neurri haundikoak
Loreak Mendian

Jaime Urrutia, 27
ELIZONDO

▶ % 5 merkeago Arropa guzietan

ARGAZKI DENDAK



DONEZTEBE • ELIZONDO
Tfnoak.: 948 58 04 91
948 45 03

64

▶ %10 merkeago errebelatu eta artikuluetan

ESKULAN MATERIALAK



Elizagibela 4
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 451 932

▶ %10 merkeago (2.000 pezetatik goitiko erosketan)



TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

☎ **948 63 11 88**

ZELA KIROLAK dendak emandako sudaderaren irabazlea:

Bibiana MITXELENA (ARANTZA)

IBARBURU jatetxeak emandako bi lagunendako bazkari edo afariaren irabazlea:

Xabier ANGULO (BERA)



ARGIA Astekariaren produktu sorta («Ihesi», «Txorakikeriak-1» eta «Txorakikeriak-2» liburuak eta 2000. urteko egutegia) zozketatzen du TTIPI TXARTELA dutenen artean.


ZAPATADENDAK



DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 02 89

▶ %5 deskontuak

OPTIKAK



Bidasoa, 8 • BERA
Tfnoa.: 948 630753

▶ %10 merkeago artikuluz guzietan

KIROLAK



IPARLA KIROLAK

Santiago, 51
ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 05 85

▶ %8 merkeago artikuluz guzietan



• Gogoratu astero Bordatxorako 6 sarrera zozketatzen direla.

ARGIA astekariak bere **produktu sorta**, zozketatuko da TTIPI TXARTELA dutenen artean. Zozketan parte hartzeko, deitu urtarilaren 5a baino lehen 948 63 11 88ra.

Jendeak erantzun polita eskaini die aurtengo Kultur Egunei

Herriko Etxeko Ganbaran egindako afariarekin akitu ziren Ibintzak prestatutako ekitaldiak

IBAN ISASI

Ibintza kultur taldeak Kultur Egunak antolatuak zituen bertze urte batez, abenduaren 3tik 5era. Ekitaldi gehienek jendearen parte-hartze haundia izan dute eta orokorrean, gustora gelditu dira antolatzaileak.

Ortziralean, talo jatearen ondotik, «Amil-degi ertzean» izeneko pelikula eta Oiartzunen mugalariei buruz egindako laburmetrai bateskaini ziren. Biharamonean haurren eguna izan zen eta tikienek ederki gozatu zuten oso-osorik beraiei eskainitako ekitaldietan. Goizean birziklapen tailerra izan zuten. Ondotik, 40 haur elkartu ziren bazkarian. Arratsaldean, haurren jokua izan ziren herriko plazan. Akitzeko, herrian itzulia egin zuten hiru buruhaundiren aitzinean.

Akitzeko, igandean «Gremlins» pelikula eskaini zen Herriko Etxeko ganbaran eta ondotik Malerrekako Mankomunitadetik etorritako Mari Jose Larraiozek, etorkizunerako birziklapenaren inguruan herrien elkarte honek dituen egitasmoak azaldu zituen.

Kultur Egunak akitzeko afaria izan zen leku berean eta 35 lagun inguru elkartu ziren. Trikitilari eta disko jartzaile baten musikarekin eman zitzaien akabaila aurtengo Kultur Egunei.

Pentsio Planak



Gaur erabaki eta urtero ospatuko duzu.

Gure bezeroek urteekin irabazten dute.

Izan ere, Rural Kutxaren Pentsio Planekin

zerga-arintze haundienaz gozatu duzu

hasieratik, etorkizuneko lasaitasuna

segurtatuko duzu eta inbertsio politika zuhur baten ondorio den errentabilitate

arras interesgarri bati etekina aterako diozu.

Urtea bukatu baino lehen, hurbil zaitez Rural Kutxara

eta aukeratu gehien komeni zaizun Pentsio Plana.

Zure neurriko Plarak ditugu.

IKUSIKO DUZU NOLA ATERAKO ZAREN IRABAZTEN.



Gainera, apari zoragarri bat lortuko duzu zure Plana orain kontratatuz gero.

10/99 • Kudeaketa Erakundeak: Rural Pensiones I.F.Z. A 78963675 • Gordailu Erakundeak: Banco Cooperativo Español I.F.Z. A 79496055

www.cajarural.com/navarra



**NAFARROAKO
RURAL KUTXA**

GOIZUETA

Aurtengo abendua bertsoz epeldua

Bertso-tramaz aparte San Andres eguna ospatu zuten eskolan

ESTEBAN AROZENA

San Andres azaroan izaten den arren, aurtun abenduaren lean ospatu zuten Xaltoren oroimeneko eguna herriko eskolan. Ez da esan beharrik, noski, bertsoa izan zela protagonista jai horretan, osoera desberdineko saioak burutzuz gainera. Irazu eta Olaetxearena lan tradizionala izan zen, baita herriko bertso eskola-koena ere. Molde berritzaileak erabili zituztenak DBHko bi kurtsoak izan ziren, antzerki emanaldi bat eskaini baitzuten, baina elkarrizketa neurtu eta erimatuekin.

Bertsoidatzien lehia-

ketaren irabazleen ize-
nak ere festa horren ba-
rrean eman ziren, on-
dorengo hauek izan zi-
relarik bosna mila pe-
zetako sariaren irabaz-
leak: 3-4. mailan, Jon
Zabaleta; 5-6. mailan,
Jon NARBATE; DBH-
lean Aritz Zubiri;
DBH-2an Naiara
Arozena.

Herriko futbito txapelketa

Hamarna lagunek osatutako sei talderen artean jokatzeko ari da herriko futbito txapelketa. Umore Ona elkarteak da antolatzailea eta lehenengo bi sailkatuen trofeoz gain, txapelketaren bukatzean afaltzera gonbidatuko



Umore Onako areto futbol taldea kantxaz kantxa ibili da aurtun arte. Artxibokoa

ditu partaide guzikiak.

Aurtun jokatzeko duena kirol honetako Umore Ona taldea da. Gipuzkoako ligako lehen eta bigarren mailan hainbeste urtez hain lan txukuna egin ondoren, denboraldi honetan ez du izenik eman. Ez omen dute inolaz ere ekipoa osatzerik izan.



Bertso-trama zentroan

Aurreko alean iragarritako bertso-tramari buruz berri, esan zentroa gainezka bete zela Maia, Elortza eta Goikoetxearen emanaldiaz gozatze-ko. Ikaragarri gustora gelditu zen jendea.

ARESO

Euskararen Egun arrakastatsua

Sokatira taldea bigarren

JUANA M^a SAIZAR

Beste urte batez Euskararen Eguna ospatu zen. Hika antzerki taldeak «Arraultza delikatuak» antzeslana eskaini zuen, Mikel Laskurain (Goenkaleko Felix) eta Teresa Andonegiantzesleekin. Ederra benetan!

Ajoarriero txapelketan Mari Carmen Garmendia izan zen ira-

bazle. Trikitixa txapelketan, berriz, herritarrek ezin izan zuten txapela lortu, bigarren eta laugarren postuan gelditu baitziren.

Presoak Euskal Herrira mozioa onartu da

Abenduaren 2an egindako batzarrean Presoak Euskal Herrira eta bereziki Larraungo bipreso, bata Iruñan gel-



Herriko tiralariak Sunbillan egindako 680 kiloko finalean

Arg.: Aitor

ditzeko eta bestea Euskal Herrira ekartzeko mozioa ahobatez onartu zen.

❖ Sokatira taldeak bukatu du Nafarroako txapelketako lana. Betelun 560 kilotan zer

egin duen jakin gabe, azpitxapeldun izan da pisu guzietan, Lesakako Beti Gazteren atzetik.

Ehoziri lanen ikastaroa antolatu du Liñu-Putzu elkarteak

Marmari Euskara Taldeak, berriz, ipuin lehiaketa prestatu du

JOSEBA AZPIROZ

Liñu-Putzu ehoziri lan zaleen elkarteak hiru hilabeteko ikastaroa antolatu behar du. Ikastaroa astearte oro, 12 egunez, egunean 2 orduz, ilbeltzaren 1 In hasita izanen da. Taldeak 8 lagunekoak izanen dira eta denoi zuzendua dago, nahiz gizon nahiz emakume, gazte edo adineko. Izena emateko epea, abenduaren 23a arte, asteazken eta ostegunetan, 3,30etatik 6etara, haurtzaindegia- ren aldameneko gelan. Argibide gehiago nahi izanez gero deitu telefono hauetara: 948 510 454 (Begoña), 948 610 857 (Arantxa) edo 948 610 736 (Pili).

Ipuin lehiaketa antolatu du Marmarik

Leitzako Marmari euskara taldeak 15 urtetik gorakoei zuzendutako ipuin lehiaketa antolatu du. Lanek guxtienez bi espazioko tarteari idatzitako 5 folio eta gehienez 20 folioko luzera izanen du-



Eguberrietako ospakizunak

Garaian garaikoa. Berriz ere sartuak gara Eguberrietako ospakizunetan. Joan den urteko zimikorik utziko ote digu Loteriak? Ezin jakin. Seguruak, Gabon gaueko eta Urte Zaharreko pesta eta Errege kabalgata dira.

te. Ipuinak sobre batean entregatuko dira, izengoiti batekin. Sobre honen barruan beste sobre txiki bat sartuko da, egilearen datuekin (izen-abizenak, helbidea...). Irabazleak 15.000 pezetatan baloratuko liburusortaeta Leitzako jatetxe batean bi lagunentzako afarria irabaziko du. Ipuinak aurkezteko azken eguna ilbeltzaren 12a da eta lanak Maimuredo Astiz liburudendan aurkez-

tu beharko dira. Epaimahaia Marmari taldeak izendatuko du eta irabazlea nor den ihaute-rietanezagutaraziko da.

Haurtzaindegiko ordezkapenak

Udal haurtzaindegiko langileen oporrak, baxak, etab. direla medio, ordezkatzeko behin-behineko langileak behar izaten dira. Haudelaeta, leitzar guz- tiek ordezkaldi hauetan parte hartzeko aukera

izan dezagun, lan poltsa bat sortuko du Udalak. Lanpostua betetze-ko ordezkoren bat beharrezkoa izaterakoan, poltsan dauden artean zozketa publiko bidez, bat aukeratu da. Beraz, izena eman nahi duenak, Udal Idazkaritzan egin beharko du. Nahitaezkoa izanen da Batxilerra, LH-II edo antzekoa izatea. Esperientzia ez da kontutan hartuko eta hautaketa zozketa bidez egingen da.

flash

❖ Ehiza elkarteari dirulaguntza

Nafarroako Gobernu-ko Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak ehiza eta arrantza elkarte ezberdinei emandako dirulaguntzen barnean 47.751 pe- zeta eman dizkio Leitzako ehiza el- karteari.

❖ Azienda katastroa

Udalak jakinarazi du azien- daren izan eta ka- tastroa oraindik egin ez dutenek hilaren bukaera arteko epea dutela egiteko.

❖ Txerri eta basurde pus- kak

Leitzara etorritako al- baitariak jakinara- zi digu txerri eta ba- surde pus- kak anali- zatzen dituela. Goi- zeko 11k baino le- hen pus- kak gasolin- degian utzi behar di- ra, etxeko telefonoa aipatu- z. Anali- zatuta- koan emaitzen berri emateko etxera dei- tzen du. Zerbitzua- rengatik 1000 peze- ta kobratzen ditu. Edozein gauza gal- detzeko honako hau da al- baitariaren te- lefonozenbakia: 689 905929.

ttipi-ttapa

7.100 harpidedun, 25.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
☎ 948 631188

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA


Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

CONSTRUCCIONES SALDIAS ETXEGINTZA OROKORRA

Teilatu eta fatxada berritzetan
espezializatuak

Pintura lanak eta gremio guziak

☎ 607 434397 • 619 058264 • LEGASA
NAFARROA GUZIAN ARITZEN GARA



BAZTAN

Garbaldako garbileku zaharra moldatzeko intentzioa du Elizondoko Herriak

Auzolanaren truke ordaindu beharreko kuota bortz familietatik lauk ordaindu du

TTIPI-TTAPA

Elizondoko alkate eta kargodunek duten egitasmoen artean, Garbaldako garbileku zaharra moldatzeak izanen du lehentasuna. "Elizondoko aferak" argitalpenean ageri denez, «leku honek bere baitan altxatzen du hainbertze emakumeren lan iluna, ahalegin handia, gaur egungo aurrerapenek hori atzertzeraz bultzatu badigute ere».

Bertze asmorik ere badute Elizondon: Santa Engraziako ermita moldatu, etxea bera indartuz eta teilatua berrituz edo Muniarteko zubia- ren ondotik ugaldera eramaten duten eskailerak txukundu, Txokoto auzoan utzia dagoen xoko polit hori berreskuratuz.

Bertzalde, auzolanaren aferaz ere solasten du Elizondoko alkateak. Herria handitzearen ondorioz, Berro eta Beartzun auzoetan ezik ohitura hau galtzen joan da. Hau horrela izanik eta Balleko Ordenantzen indarra erabi-



Guggenheim museora bisitaldia

San Franciscoe gunean autobusa betez joan ziren baztandarrak Bilboko Guggenheim Museora, Balleko Udal Kultur Zerbitzuak antolatutako txangoan. Bertzeak bertze, Andy Warhol artistaren erakusketa eta Motozikletaren Artea ikusteko modua izan zuten. Arte Ederretako Museora ere joan ziren. Egun osoa artea eta kultura ikusten ez egoteko, Corte Ingles-era ere bisitatxoa egin zuten. Argazkia: Ondikol

liz familia eta urte ba-koitzeko mila duroko kuota ordaintzea onartu zen batzarrean. Herriak erantzun ona eman dio eskari honi eta familien %80ak ordaindu du. Hemendik aitzine- ra kuota hori martxoan kobratuko dela ere jakinarazi du Anastasio Nagore alkateak.

Elizondoko Herriko

Etxean telefonoa jarri dute, 948 581450 zenbakia duena.

Eguberrietako postalen erakusketa

Eguberrietako postalen lehiaketan parte hartu duten lanak ikusgai daude abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra Bozateko Gorrienea etxean. Balleko Udala

eta Xabier Santxotena eskulturgilearen elkarlaguntzaz antolatutako lehiaketa honetan Baztango haurrek parte hartu dute. Arizkungo etxe berean eta egun berbetan, Eguberriak Baztanenerakusketa ere zabalik izanen da. Munduko leku ezberdinetatik ekarritako irudiak ikusgai izanen dira.

Beartzungo zabortegia

Beartzungo zabortegitik erre kara eroriak izateko arriskua dagoela eta neurriak hartzea eskatu du Pedro Mari Esarte, Iturri Ederra elkarte-ko lehendakariak. Balleko Udalak Beartzungo zabortegia itxia eta berreskuratze bidean dagoela erantzun du.



SUPER-BAZTAN

GRUPO ALIMENTACION DIA %

Urte Berri On!

Santiago 40 • ☎ 948 580453 • ELIZONDO

Carlos Garaikoetxea Etxenike

abokatua
aseguru orokorrak

☎ 948 581468

948 580433 (etxekoa)
Frantziarako etorb. 3

Ameztialde 3.B•ELBETE

❖ **Iruritako aita-semeak trafiko istripuan hilak**

Jose Urrutia Sarratea aita eta Asier Urrutia Mitxelena zortzi urteko semea abenduaren 7an izandako trafiko istripuan hil ziren. Beraien autoak kamioi baten kontra jo zuen, Arizkungo bidegurutzearen ondoan dagoen Laurentx inguru arriskutsuan.

❖ **10 milioi pezeta luberriak atera eta belagiak hobetzeko**

Baztango herri lurretan luberriak atera eta belagiak hobetzeko 10 milioi pezeta inbertsioa eginen du Balleko Junta Generalak. Horien aprobetxamendua herritarren artean banatuko da gero. Zehazki, Goizerain, Zumartegi, Aizkoa-Bagola, Arazela, Otsondoeta Armatela inguruetan hobetuko dira belagiak, proiektuaren arabera.



Xorroxin Irratiko lankide, berriemaile eta laguntzaileek Lesakan egin zuten urteko bazkaria azaroaren 27an.

Argazkia: Joxemanuel

Dirulaguntza kanpainari ekin dio Xorroxin Irratiak

Eguneroko bizitza bermatzeko nahitaezkoa du

TTIPI-TTAPA

Diru irteeren eta sarriren arteko desoreka parekatzeko intentzioarekin dirulaguntza kanpaina hasi du Xorroxin Irratiak. Xorroxinetik jakinarazi dutenez, bere eguneroko bizitza bermatzeko nahitaezkoa dute entzuleen laguntza, kontuan hartuz dirulaguntza publikoak gero eta guttiago direla eta gastuak gero eta gehiago izaten direlako. «Eguneroko bizitza bermatu nahi dugu, hau da, Xorroxinek dituen tresneri guzien (Legate eta Larungo errepikagailuak nahiz estudio barnekoena) ordezkioak eduki. Horretarako emisioa, irrati enlazeak, antenak, soinu-mahaiak... erosi behar dira. Honetaz gain, Ur-dazubieta Zugarramurdiko errepikagailuan

behar den tresneria jarrri nahi da, bi herri hauetan ongi adituahal izateko. Azkenik, Lesakako estudio berria prestatu nahi dugu, lizentzia eskuratuz ge-

rozтик airean daukaguna eginez».

Xede hauek lortzeko bi laguntza modu proposatzen ditu Xorroxinek. Alde batetik, eskualdeko komertzio-

zerbitzугune guztietan salgai dauden 1.000 edo 5.000 pezetako laguntza bonoak erostea edo Xorroxingokideeginez. Kasu honetan, urteko diru sari bat ordainduko du kide bakoitzak. Xorroxin Irratiak zera proposatu du, langabetu, ikasle eta jubilatuek 3.000 pezeta ordaintzea eta langileek 6.000 pezeta. Halere, norberak erabaki behar du laguntzaren kopurua.



PELUAGA

Emakumeendako moda eta osagarriak

Zure konfidantzazko denda

Colon Pasealekua, 7
Tel: 943 622816
IRUN

BAZTAN

SARA

Almandozen eskola berria egiteko baimena eman dute Balleko Udalak eta Nafarroako Gobernuak

RAMON APEZETXEA

Nafarroako Gobernuak eta Baztan Balleko Udalak baimena eman dute Almandozen eskola berria egiteko, gaur egungo eskolak gutieneko baldintzak betetzen ez dituelakoan.

Almandozen argi berriak jarri dituzte

Almandozko karraketan argi ederra dute azkenean. Urtetan karrika etabazter ilun izan dakoak argi berezi batek piztu ditu orain.

Emakumeen mus txapelketa

Bertzalde, ohitura onei atxikiz, emakume talde batek mus txapelketa antolatu eta jokatu du. Finalaren ondotik, afari eder batean bildu ziren.

Ur nahikorik ez

Iturri berria, ur-biltegi berria, ur-sare berria, 30 milioi pezeta gastatuak, baina ur nahikorik ez Almandozen. Zer gertatzen da? Zergatik batzuetan lehen baino ur gutiago ailegatzen da etxetara? Ez dugu horren informaziorik, baina norbaitek azalpenak eman beharko lituzke.

Eguberriak

Neska-mutikoek alaituko dituzte beste hauek, ohitura zaharrak mantenduz. Olentzero aterako da Almandozen, Urteberri egunean ere karrikaz karrika ibiliko dira eskean eta Errege Bezperan joareekin aterako dira.

Presoak Euskal Herrirat ekarriak izan daitezzen galdatu zen plazan

Abenduaren 3ko ekitaldian berrogeita hamar lagun bildu ziren

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Joan den abenduaren 3an Euskal Herriko beretze toki ainitzetan bezala, Sara eta inguruko herrietako 50 bat lagun bildu ziren plazan, euskal presoak Euskal Herrirat ekarriak izan daitezzen galdatzeko. Orhoitu behar da Bixente Garcia saratarra beti preso atxikia dela, eta ondoko herrietan ere kasu berebean diren presuna frango badela, atxilotua izan den azkena Aratz Gomez azkaindarra delarik.

Agerraldiaren ondotik, hurbildu diren guzieren jateko eta edateko eskainia izan zaie Gaztetxean, nolabaiteko berotasuna ekartzeko abenduko gau hotz hari. Bertzalde, gan den urtean bezala, Zugarramurdiko eta Sarako biztanleak elgarretaritze baterat gomit dira, heldu den abenduaren 3In, gaueko 8etan, presoekiko elkartasunaren erakusteko besta garai horretan.

Telethon

Telethon miopatiari buruzko ikerlanen sustengatze kanpainak abenduaren 4an izan zuen bere egun herria. 9443'45 libera bildu ziren egun hortan. Eskerrak parte hartu duten guziei.

Euskal Herriko esku huskako pilota txapelketa

Esku huskako Euskal Herriko pilota txapelketako kanporaketak



Berrogeita hamar urteak ospatuz

